

Kostuen egitura (Baserri eskola)

Kostuen egiturari erreparatuz, esan dezakegu gure baserri eskolaren hasierako puntuan jarri beharko ditugun diru-sarrerak zein subentzioak gure zerbitzuaren kostu finko bat izango dira. Hau da, jarriko dugun diru multzo horri esker, gure baserri eskolaren antolamendua zein funtzionamendua martxan jartzeko aukera izango dugu. Baina, denbora pasa ahala, lortzen ditugun diru-sarrera berrien bitartez, oreka sentrazio bat lortzeko helburuaren beharra ere ikusi egin dugu.

Gure lehenengo helburua, argi dago, gure gastuak orekatzea izango litzatekeela. Beraz, aurretik esan dugun moduan, lortu nahi dugun oreka horren bitartez gure baserriaren ordena, apainketa... suposatuko du. Ideia bat egin ahal izateko, hurrengo taulan gure zerbitzua aurrera ateratzeko beharrezkoak izango ditugun materialen prezioak izango ditugu:

Aulkiak	550€
Mahaiak	600€
Pikler materiala	2500€
Montessori materiala	2500€
Oheak	1400€
Koltxonetak	500€
Pelotak	200€
Pinturak	500€
Pardelak	1000€
Toallitak	450€
Liburuak	500€
Ispilua	300€
Armairuak	600€
TOTALA:	11600€

Materialaren gastu horien zehaztapenak egin ostean, gure baserriaren funtzionamenduan aldizkako gastuak ere izango ditugu. Aldizkako gastu horiek: argia, ura... izango lirateke. Gastu edo kostu horien ordainketak hiruhilabeteka izango dira eta ez digute eragin handirik suposatuko. Azken batean, hilean 600 euroko ordainketa izango delako. Honekin jarraitzeko, gastu honek trimestreka ordainduko direnez, kontu handia izango dugu trimestre bakoitzean kostuak desberdinak izango direlako. Hau da, kostu honek egiten dugun erabilpenaren arabekoak izango dira. Baina, nahiz eta erabilpenaren araberakoa izan, bata besteko kostu bat finkatzen dugu zeren eta egunero erabiliko ditugun baliabide batzuei buruz hitz egiten gaudelako.

Beste alde batetik, aldizkako gastu horiek alde batera utziz eta materialen gastu horietara bueltatuz, kontuan izan behar dugu gure zerbitzuak asteburuetan ere eskaintzen dugula. Beraz, 15 familiei zuzendutako material nahikoa erosi egin dugu. Beraz, lortutako kopuru horiek aurreikuspen batzuk izatea eragiten du. Baina, uste dugu materialaren erabilerak bai eragingo digula familien araberako gastuan eta horregatik uste dugu margoak, orriak... hainbatetan erabili ondoren, material horiek aldatu egingo ditugula. Hau da, material horien kontsumoaren arabera.

Aktiboei dagokionez, lokairuari ez diogu hainbestelako garrantziarik emango, zeren eta gurea denez ez dugu horren gasturik izan behar. Aldiz, garraioa kontuan izango dugu, gure baserri eskolarako bidea errazteko, non guk ordainduta izango dugu eta ondoren bezeroen ordainketekin mantendu ahal izango dogu. Hau da, aurreikusitako gastua izango da, eta mila euro inguruko aurrekontua izango dogu garraiorako.

Asteburuetan monitoreak ere izango ditugu, beraz hileko nominak egingo ditugu haientzat. Kontuan izanda lan egunak eta egun bakoitzeko ordu kopurua, bakoitzeko 700€ko hileko soldata mantentzea erabaki dogu. Gure ustez, nominak horrela mantentzea hoberena da, modu horretan ordena bat mantentzen dogu eta ordainketak egiteko erosoena, eta modu batean ere lortu dezakegu langile finkoak eta konfiantzazkoak izatea, jakinda kontratuak hilerokoak izango direla eta ez asteburukoak.